# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 4641

AGINDUA, 2005eko uztailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna gauzatzeko prozesua arautzen duena.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, bere 38. artikuluan jarri die helburua arte-irakaskuntzei; hain zuzen ere, ikasleei kalitatezko arte-prestakuntza ematea, eta etorkizunean arte plastikoetako eta diseinuko profesional izango direnen kualifikazioa bermatzea. 47. artikuluak, ildo beretik, erdi-mailako eta goi-mailako berariazko heziketa-zikloetan antolatu ditu Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketak.

Martxoaren 5eko 362/2004 Errege Dekretuak (BOE, martxoaren 26koa) ezarri du berariazko Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra, eta bere lehen xedapen gehigarrian finkatu du Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari edo goi-mailako teknikari tituluak ateratzeko ikasketak heziketa-zikloetan antolatzen direla, aipatu Errege Dekretuak xedatu duenaren arabera. VI. kapituluan, berriz, heziketa-zikloen ebaluazioaren oinarrizko alderdiak finkatu ditu.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloen tituluak ezarri eta horiei dagozkien gutxieneko irakaskuntzak onartu dituzten Errege Dekretuek diotenaren arabera, ikasleek, Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari edo goi-mailako teknikari tituluak ateratzeko, ebaluazio positiboa erdietsi behar dute honako hauetan: ikastetxeko prestakuntza-aldian zikloaren curriculuma osatzen duten modulu guztietan, enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldian, eta azken obra edo proiektuan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko ikastetxeetan ematen diren Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-arloetako curriculumak ezartzeko dekretuak argitaratu ondoren, bidezko da honako hauek arautzea: ebaluazio-prozesuaren garapena eta denbora-antolamendua, kurtsoak igarotzeko baldintzak, prestakuntza praktikoaren aldiaren ebaluazioa, eta azken obra edo proiektuarena.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 4641

ORDEN de 19 de julio de 2005, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el proceso de evaluación, acreditación académica y movilidad del alumnado que curse ciclos formativos de Artes Plásticas y Diseño en Centros de la Comunidad Autónoma Vasca.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, en su artículo 38 asigna a las enseñanzas artísticas la finalidad de proporcionar al alumnado una formación artística de calidad y garantizar la cualificación de los futuros profesionales de las artes plásticas y el diseño. El artículo 47 organiza las enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño en ciclos de formación específica de grado medio y de grado superior.

El Real Decreto 362/2004, de 5 de marzo (BOE de 26 de marzo), establece la ordenación general de la formación profesional específica y en su Disposición Adicional primera determina que las enseñanzas conducentes a los títulos de Técnico y Técnico Superior de Artes Plásticas y Diseño se organizan en ciclos formativos de acuerdo con lo dispuesto en dicho Real Decreto. En el Capítulo VI establece los aspectos básicos de la evaluación en los ciclos formativos.

Los Reales Decretos que establecen los títulos de los ciclos formativos de grado medio y de grado superior y aprueban las correspondientes enseñanzas mínimas, establecen que para la obtención del título de Técnico o de Técnico Superior de Artes Plásticas y Diseño, el alumno o alumna debe haber obtenido evaluación positiva en la totalidad de los módulos que constituyen el currículo del ciclo en la fase de formación en centro educativo, en la fase de formación en empresas, estudios y talleres y en la obra o proyecto final.

Una vez publicados los Decretos por los que se establecen los currículos de los ciclos formativos de diferentes familias profesionales de Artes Plásticas y Diseño que se imparten en los centros pertenecientes al ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procede regular el desarrollo del proceso de evaluación y su organización temporal, las condiciones de promoción, la evaluación de la fase de formación práctica así como de la obra o proyecto final.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Aplikazio-eremua.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak araututako Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe publiko eta pribatuetan aplikatuko da agindu hau, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

*2. artikulua.–* Ebaluazioaren ezaugarriak.

1.– Ikasleen ikasketa-prozesuaren ebaluazioak funtsezko helburutzat hartuko du aprobetxamendua zuzen baloratzea eta aztertzea, zailtasunak gertatu bezain laster, edo ahalik eta lasterren, hauteman, horren arrazoiak aurkitu eta, ondorioz, prestaturiko irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak eta erabilitako estrategia metodologikoak egokitu eta/edo indartzeko.

2.– Ikasleek ikastetxean egiten duten ikasketaren ebaluazioa hasieran, azkenean eta etengabe egingo da, curriculuma osatzen duten moduluen arabera bereizita. Hasierako ebaluazioaren bitartez, irakasle bakoitzak ikasleen maila egiaztatuko du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hasi baino lehen. Etengabeko ebaluazioak, berriz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta horren osagaien garapenari ekingo dio. Azken ebaluazioa, finean, ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren amaieran atera dituen emaitzak baloratu, eta hezkuntza-helburuen lorpenaren araberako azken kalifikazioak finkatzeko izango da.

3.– Moduluka egingo da ebaluazioa, ondokoak kontuan hartuta: modulu bakoitzari ezarri zaizkion helburuak eta ebaluazio-irizpideak, eta ikasleen heldutasuna, tituluak berezko duen lanbide-profilari dagokionez, horixe baita zikloaren helburu orokorrak definitzeko erreferentzia.

4.– Ikasleen etengabeko ebaluazio-prozesua aplikatuko bada, ikasleek erregulartasunez joan beharko dute Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-ziklo bakoitzaren moduluetarako programatu diren eskola eta jardueretara.

5.– Azken obraren, edo hala bada, azken proiektuaren balorazioa dagokien curriculumaren arabera egingo da, ikastetxean emandako moduluak eta enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldia gainditu ondoren.

*3. artikulua.–* Ebaluazio-prozesuaren garapena.

1.– Apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuak (EHAA, 1997-05-07) bere 15. artikuluan xedatu duenari jarraiki, ikastetxeek euren irakaskuntza-programazioaren baitan zehaztuko dituzte ikaslearen aitzinamendua baloratu eta jasotzeko ebaluazio-une, -estrategia eta -tres-

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Ámbito de aplicación.

La presente Orden será de aplicación en los centros docentes, públicos y privados, que impartan ciclos formativos de Artes Plásticas y Diseño, regulados por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.–* Características de la evaluación.

1.– La evaluación del proceso de aprendizaje del alumnado tendrá como finalidad básica la correcta valoración de su aprovechamiento y su análisis para detectar posibles dificultades en el momento más próximo al que se producen, averiguar sus causas y, en consecuencia, adecuar y/o reforzar las actividades de enseñanza y aprendizaje programadas y las estrategias metodológicas adoptadas.

2.– La evaluación del aprendizaje del alumnado en el centro será inicial, continua y final, diferenciada según los distintos módulos de su currículo. La evaluación inicial servirá para que cada profesor compruebe el nivel del alumno o alumna antes de comenzar el proceso de enseñanza-aprendizaje. La evaluación continua actuará sobre el desarrollo del proceso de enseñanza-aprendizaje y de los elementos que lo integran. La evaluación final servirá para valorar los resultados obtenidos por el alumno o alumna al término del proceso de enseñanza-aprendizaje y para determinar las calificaciones finales en función de la consecución de los objetivos educativos.

3.– La evaluación se realizará por módulos, teniendo en cuenta los objetivos y los criterios de evaluación establecidos para cada módulo, así como la madurez del alumnado en relación con el perfil profesional característico del título, que constituye la referencia para definir los objetivos generales del ciclo.

4.– La aplicación del proceso de evaluación continua del alumnado requiere su asistencia regular a las clases y a las actividades programadas para los distintos módulos de cada ciclo formativo de Artes Plásticas y Diseño.

5.– La valoración de la Obra final, o en su caso, del Proyecto final se realizará de acuerdo con los respectivos currículos, una vez superados los módulos impartidos en el centro educativo y la fase de formación práctica en empresas, estudios o talleres, y tendrá carácter final.

*Artículo 3.–* Desarrollo del proceso de evaluación.

1.– Los centros educativos especificarán en el marco de su programación docente, según se indica en el artículo 15 del Decreto 97/1997, de 29 de abril, (BOPV 07-05-1997), los momentos, las estrategias y los instrumentos de evaluación que se consideren más adecua-

narik egokienak, dagokion curriculumean ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera, betiere.

2.– Ondokoak hartuko dituzte kontuan irakasleek moduluen ebaluazioa egiterakoan: Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzen helburu komunak erdietsi ote diren, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa zikloen helburu espezifikoak lortu ote diren, eta modulu bakoitzaren berezko ebaluazio-irizpideak, curriculumean zehaztuak.

3.– Ikasle-multzo bakoitzaren hezkuntza-taldeak ikastetxean ematen diren moduluen ebaluazioa egingo du, tutorea buru eta antolatzaile izango duten saioetan, moduluetako irakasleek emandako informazioak erkatu, eta ikasleek helburuak lortzeari begira daramaten bilakaera denen artean baloratzeko.

4.– Gutxienez ebaluazio-saio bat egingo da ikasturtearen lauhileko bakoitzeko, ikastetxeko prestakuntzaren aldiko moduluak ebaluatzeko.

5.– Hezkuntza-premia bereziak izan eta curriculum-egokitzapen garrantzitsuak egin zaizkien ikasleen ebaluazioan, berriz, kontuan hartu beharko da inguruabar hori, eta curriculum-egokitzapenean ezarritako irizpideak oinarrizko erreferentziatzat hartuko dira. Nolanahi ere, ezin izango diote eragin tituluaren izenari dagokion lanbide-profilaren deskripzioko helburuak edo gaitasunak desagertzeari.

*4. artikulua.*– Moduluen kalifikazioa.

1.– Moduluak bereiz kalifikatuko dira, 1 eta 10 arteko zenbakien eskala erabilita, hamartarrik gabe, eta modulu bakoitzaren ebaluazioa gainditzeko 5 edo gehiagoko kalifikazioa atera beharko da.

2.– Ikasle bati eduki progresiboa duen moduluaren kalifikazioa emango bazaio, dagokion modulua gainditsuta eduki beharko du aurreko kurtsoan. Aurreko modulu hori gainditzeke badago, osteko moduluari «Kalifikatzeke» jarriko zaio, eta gainditu gabekotzat joko da.

*5. artikulua.*– Hurrengo kurtsora igarotzea ikastetxeko prestakuntza-aldian.

1.– Bi modulu baino gehiagotan, edo «ardatz-modulu»tzat jotako bitan, kalifikazio negatiboa ateratzen bada, ezin izango da hurrengo kurtsora igaro.

2.– Ikasleak ezin badu hurrengo kurtso edo fasera igaro, gainditu gabeko moduluak baino ez ditu errepikatuko.

3.– Zuzeneko hezkuntzan (erregimen presentziala), ikasle batek birritan, gehienez, egin ahal izango ditu modulu baterako aurreikusi diren jarduerak; betiere, gutxienez bi modulu gainditu baditu, eta horietako bat ardatz-modulua bada.

dos para valorar y registrar los avances conseguidos por el alumno o alumna, siempre de acuerdo con los criterios de evaluación establecidos en el correspondiente currículo.

2.– El profesorado al realizar la evaluación de los módulos, tendrá en cuenta la consecución de los objetivos comunes a las enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño, los objetivos específicos de los ciclos formativos en el caso de grado medio o bien en el de grado superior y los criterios de evaluación propios de cada módulo, especificados en el currículo.

3.– El equipo educativo de cada grupo de alumnos o alumnas realizará la evaluación de los módulos que se imparten en el centro, en sesiones organizadas y presididas por el tutor o tutora, con el fin de contrastar las informaciones proporcionadas por el profesorado de los distintos módulos y valorar de manera conjunta el progreso del alumno o alumna en la consecución de los objetivos.

4.– Se celebrará, al menos, una sesión de evaluación cada cuatrimestre lectivo para la evaluación de los módulos de la fase de formación en centro educativo.

5.– En la evaluación de los alumnos o alumnas con necesidades especiales que hayan seguido una adaptación curricular significativa se tendrá en cuenta dicha circunstancia, tomando como referencia básica los criterios establecidos en dicha adaptación curricular que, en ningún caso, habrán podido afectar a la desaparición de objetivos o capacidades en relación con la descripción del perfil profesional correspondiente a la denominación del título.

*Artículo 4.*– Calificaciones de los módulos.

1.– Los módulos se calificarán separadamente, empleando la escala numérica de 1 a 10, sin decimales, siendo preciso obtener una calificación igual o mayor de 5 para superar la evaluación de cada módulo.

2.– Para que el alumno o alumna pueda ser calificado de un módulo de contenido progresivo es preciso que haya superado previamente el módulo correspondiente del curso anterior. En el caso de no superación del módulo precedente, el módulo posterior deberá figurar como «No calificado» y será considerado como pendiente.

*Artículo 5.*– Promoción en la fase de formación en centro educativo.

1.– La calificación negativa en más de dos módulos o en dos si ambos son los establecidos como «troncales» impedirá la promoción al curso siguiente.

2.– En el supuesto de que el alumno o alumna no pueda promocionar al siguiente curso o fase, únicamente deberá volver a cursar los módulos no superados.

3.– En régimen presencial, el alumno o alumna podrá desarrollar las actividades programadas para un módulo un máximo de dos veces, siempre y cuando haya superado al menos dos módulos, siendo uno de ellos un módulo troncal.

*6. artikulua.*– Deialdiak eta ikastetxean irautea.

1.– Ikastetxeek aparteko deialdi bat jarriko dute moduluren batean kalifikazio negatiboa atera duten ikasleentzat.

Ziklo bakoitzaren curriculum-proiektuak ezarriko du ebaluazio-plana, eta bertan finkatuko dira bai ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak, bai etengabeko ebaluaziorako eskubidea galdu duten ikasleentzako proben diseinua, gainditu gabeko modulu bakoitzari ezarri zaizkion amaierako gaitasunak lortu direla frogatze aldera.

2.– Ikasleek, gehienez ere, lau deialdi izango dituzte, ohikoak eta apartekoak kontuan hartuta, modulu bakoitza gainditzeko.

3.– Ardatz ez diren modulu bat edo bi aurreko ikasturtetik gainditu gabe dituzten ikasleei begira, ikastetxeek deialdi bat jarriko dute, ikasturte bakoitzaren lehen lauhilekoaren amaieran.

4.– Ikasleek, ikasturte bakoitzean, bere esku izango dute uko egitea dagokion curriculuma osatzen duten moduluren baterako deialdiari edo deialdiei, eta ondorioz, baita horren kalifikazioari ere. Dena den, ikasleek gehienez lau ikasturte izango dituzte curriculum bakoitzak egituratzen dituen modulu guztiak egiteko.

5.– Moduluren baten deialdiari uko egiteko eskaria azken ebaluazioa –ohikoa zein apartekoa- baino bi hilabete lehenago egingo da, gutxienez. Ikastetxe publikoko zuzendariak ebatziko du, hamar eguneko epean gehienez ere, eta uko egiteko eskaria onartu ahal izango du, hori bidezkotzeko arrazoirik bada.

6.– Dagokion diligentziaren bidez jasoko da uko egiteko baimena Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloak ebaluatzeko prozesuaren dokumentuetan.

7.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak «bosgarren deialdi»rako baimena emana ahal izango du, ondokoetakoren bat gertatuz gero: ikasketei arreta normala egitea eragozten duten gaixotasun fisiko edo psikiko luzea, lanpostu bat eskuratzea edo familiaren edo norberaren betebeharrak, edota antzeko kasuak.

8.– Dagokion diligentziaren bidez jasoko da bosgarren deialdirako baimena Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloak ebaluatzeko prozesuaren dokumentuetan.

*7. artikulua.*– Ohiko ebaluazioa.

1.– Moduluen ohiko ebaluazioaren garapenak lau jarduera-mota dakartza, zikloaren curriculum-proiektuan zehazten diren aldien arabera:

*Artículo 6.*– Convocatorias y permanencia en el centro.

1.– Los centros establecerán una convocatoria extraordinaria para el alumnado que hubiera obtenido calificación negativa en algún módulo.

El proyecto curricular de cada ciclo establecerá el plan de evaluación, en el que se fijarán los criterios y los procedimientos de evaluación así como el diseño de las pruebas que permitan al alumno o alumna que ha perdido el derecho a la evaluación continua, evidenciar el logro de las capacidades terminales establecidas para cada módulo no superado.

2.– Para la superación de cada módulo, los alumnos dispondrán de un máximo de cuatro convocatorias, entre ordinarias y extraordinarias.

3.– Para aquellos alumnos o alumnas que tengan pendientes uno o dos módulos del anterior cursado, siempre que no sean módulos troncales, los centros establecerán una convocatoria a la finalización del primer cuatrimestre de cada curso académico.

4.– Los alumnos o alumnas tendrán la posibilidad de renunciar a la o las convocatorias de cada curso académico y a la consiguiente calificación de alguno de los módulos que integran el currículo correspondiente. No obstante, para cursar los diferentes módulos en que se estructura cada currículo, el alumnado dispondrá de un máximo de cuatro cursos académicos.

5.– La solicitud de renuncia a la convocatoria de algún módulo se formulará con una antelación de, al menos, dos meses a la evaluación final, ordinaria o extraordinaria. El Director del centro público resolverá, en el plazo máximo de diez días, y podrá autorizar dicha renuncia cuando concurra alguna circunstancia que así lo justifique.

6.– La autorización a la renuncia se incorporará, mediante la oportuna diligencia, a los documentos del proceso de evaluación de los ciclos formativos de Artes Plásticas y Diseño.

7.– La Dirección de Innovación Educativa podrá autorizar una «quinta convocatoria» en las siguientes circunstancias: enfermedad prolongada de carácter físico o psíquico, incorporación a un puesto de trabajo u obligaciones de tipo familiar o personal que impidan la normal dedicación al desarrollo de los estudios o en otros supuestos que merezcan igual consideración.

8.– La autorización de la quinta convocatoria se incorporará, mediante la oportuna diligencia, a los documentos del proceso de evaluación de los ciclos formativos de Artes Plásticas y Diseño.

*Artículo 7.*– Evaluación ordinaria.

1.– El desarrollo de la evaluación ordinaria de módulos, implicará cuatro tipos de actuaciones, en función de los periodos que se especifiquen en el proyecto curricular del ciclo:

a) Moduluak partzialki ebaluatzeko saioa. Lau hilabetez behin egingo da, gutxienez, eta bertan ikasleen aitzinamendu akademikoa baloratuko da, eta horren berri emango zaie ikasleei eta gurasoei edo tutoreei.

b) Modulu bakoitzaren azken ebaluazio-saioa. Ondokoak baloratu eta kalifikatuko dira saio horretan: ikasleen lorpenak, modulu bakoitzari ezarri zaizkion amaierako gaitasunei begira.

Zikloaren curriculum-proiektuak modulu bakoitzari jarri dion eskola-aldiaren amaiera izango da modulu bakoitzaren azken ebaluazio-saioa egiteko garaia, eta, denboraren aldetik, bat egin ahal izango du zikloa garatzeko dauden ikasturteetako bakoitzeko azken modulu-ebaluazio partzialarekin.

Zikloko moduluak ebaluatzeko azken saioarekin batera, erabakiak hartuko dira ikaslea enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldira igarotzeari buruz, eta azken proiektua edo obra egiteari buruz.

c) Zikloko espezialitateaz arduratzen den hezkuntza-taldeak egingo du enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldiaren ebaluazioa, eta aldi praktikoko prestakuntzaz arduratzen den irakasle/tutoreak koordinatuko du. Tutoreak emango du azken kalifikazioa, eta horretarako, kontuan hartuko du lantokiak ikaslearen lantokialdirako izendatu duen prestakuntza-arduradunaren txostena. Txosten horrek, beraz, ikasleak egindako jardueren balorazioa jasoko du, aldi horri esleitu zaizkion gaitasunak noraino erdietsi diren neurtuz.

d) Azken obra edo azken proiektua ebaluatzeko saioa egiteko, gainera, modulu guztiak eta enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldia gainditurik eduki beharko dira. Saio honetan, azken obra, edo hala bada, azken proiektua baloratuko da bere osoan, curriculum-diseinuari buruzko dekretuak ezarritako edukiak erreferentziatzat hartuta.

2.– Heziketa-zikloaren azken ebaluazioaren aktak, finean, azken obra edo azken proiektua gainditu duen ikaslearen azken kalifikazioa jaso, eta titulua emateko proposamena egingo du.

*8. artikulua.*– Aparteko ebaluazioa.

1.– Ohiko ebaluazioan moduluren bat gainditu ez duen ikaslea aparteko deialdira aurkez daiteke, gainditzeke dituen moduluak direla eta. Bere curriculum-proiektuan ezarriko du ikastetxeak aparteko ebaluazioaren data, inoiz ekainaren 30a baino beranduago izango ez dena.

2.– Ikastetxeko zuzendaritzak neurri egokiak hartu eta datak finkatuko ditu, ikasleek, falta zaizkien modulu guztiak aurreko puntuan ezarri den aparteko ebaluazio-saioan gaindituz gero, enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldia, eta azken obra edo proiektua egin ahal izan ditzaten.

a) Sesión de evaluación parcial de módulos. En esta sesión, que al menos se realizará con una frecuencia cuatrimestral, se valorará y se informará de los progresos académicos a los alumnos o alumnas, padres o tutores.

b) Sesión de evaluación final de cada uno de los módulos. En esta sesión se valorarán y se calificarán los logros del alumnado en relación a las capacidades terminales establecidas para cada módulo.

La sesión de evaluación final de cada módulo tendrá lugar al final del periodo lectivo asignado para cada uno de ellos en el proyecto curricular del ciclo y podrá coincidir en el tiempo con la última evaluación parcial de módulos de cada uno de los años académicos en que se desarrolle el ciclo.

Coincidiendo con la sesión de evaluación final de los módulos del ciclo se tomarán decisiones sobre el acceso del alumno o de la alumna al periodo de realización de la fase de práctica en empresas, estudios o talleres y de la realización del proyecto u obra final.

c) La evaluación de la Fase de Formación Práctica en empresas, estudios o talleres será realizada por el equipo educativo correspondiente a la especialidad del ciclo y coordinado por el profesor/tutor o profesora/tutora de la formación de la fase práctica. El tutor o tutora realizará la calificación final en la que tendrá en cuenta el informe elaborado por el responsable de la formación del alumno o alumna designado por el centro de trabajo durante el periodo de estancia en el mismo. En el citado informe deberán constar las valoraciones de las actividades realizadas por el alumno o alumna en relación con el grado de consecución de las capacidades atribuidas a dicha fase.

d) La sesión de evaluación de la Obra final o del Proyecto final será realizada una vez superados todos los módulos y la fase de formación práctica en empresas, estudios o talleres. En esta sesión se evaluará globalmente la obra final, o en su caso, el proyecto final, tomando como referencia los contenidos que el decreto del diseño curricular establece.

2.– El acta de evaluación final del ciclo formativo, establecerá la calificación final del alumno o alumna que haya superado la obra final o el proyecto final y hará la propuesta de expedición del título.

*Artículo 8.*– Evaluación extraordinaria.

1.– El alumno o alumna que no haya superado algún módulo en la evaluación ordinaria podrá presentarse a la convocatoria extraordinaria de los módulos pendientes. La fecha de la evaluación extraordinaria será establecida por el centro en su proyecto curricular y nunca será posterior al 30 de junio.

2.– La dirección del centro adoptará las medidas oportunas y fijará las fechas para que el alumno o alumna que supere la totalidad de los módulos pendientes en la sesión de evaluación extraordinaria de módulos establecida en el punto anterior pueda realizar la fase de formación práctica en empresas, estudios o talleres, y la obra final o el proyecto final.

*9. artikulua.–* Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldia.

1.– Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldira (PPA) sartu ahal izateko, modulu guzti-guztien balorazio positiboa beharko da.

2.– Aurrekoa gorabehera, heziketa-zikloaren ardura duen hezkuntza-taldeak baimena eman ahal izango du aldi hori ikastetxeko prestakuntzaren aldian edo hori amaitzen denean hasteko; azken kasu horretan, dena den, ezin izango da ikasturte bat baino gehiago igaro ikastetxeko prestakuntza amaitu eta praktikak bukatu bitartean.

3.– Praktikaldiaren (PPA) azken kalifikazioa Gai edo Ez gai izango da.

4.– Prestakuntza praktikoaren aldian «Ez gai» ateratzen bada, inola ere ezingo da gainditu gainditzeko proba edo jardueraren bitartez.

5.– Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldi osoa edo zati bat egitetik jare geratzeko aukera ere badago. Horretarako, baina, honako hau egiaztatu beharko da: gutxienez urtebeteko lan-esperientzia heziketa-zikloarekin zerikusi zuzena duen lanbide-alorrean, praktikaldiari dagozkion gaitasunak lortu direla frogatzeko moduan.

6.– Gehienez bi deialdi izango dira enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren aldia ebaluatzeko.

*10. artikulua.–* Azken proiektua edo obra.

1.– Heziketa-zikloko modulu guztiak gainditu ondoren, ikasleak hauxe aurkeztuko du: azken proiektua edo obra egiteko proposamena, gauzatu nahi duen edukia jasoko duena.

2.– Ondokoak hartuko ditu kontuan epaimahaiak ikasleak egindako proposamenaren onarpena eta azken proiektu edo obra ebaluatzeko: helburuak bete ote diren eta ebaluazio-irizpideak, dagozkien curriculumetan ezarritakoaren arabera.

3.– Azken proiektua edo obra osatzen duten ataletako bakoitzaren kalifikazioa zenbakiz adieraziko da, 0tik 10era, hamartarrik gabe. Azken proiektuaren edo obraren kalifikazioa ateratzeko, arestian adierazitako ataletan ateratako puntuazioaren batez bestekoa egingo da, eta zenbakiz adieraziko da, hamartar batekin. Batez besteko puntuazioak bost edo gehiago izan beharko du, azken proiektuaren edo obraren ebaluazioa positiboa izango bada.

4.– Gehienez bi deialdi izango dituzte ikasleek azken kalifikazioa lortzeko, azken proiektua edo obra egiterakoan. Ikasleak kalifikazio positiborik ateratzen ez badu lehen deialdian, aukeran izango du azken obra edo proiektu berari eustea, edo beste proposamen bat aurkeztea.

5.– Azken kurtsoko modulu bat edo bi gainditu gabe dituzten ikasleek, ardatz-moduluak ez badira behin-

*Artículo 9.–* Fase de Formación Práctica en empresas, estudios o talleres.

1.– El acceso a la Fase de Formación Práctica en empresas, estudios o talleres (FFP) requerirá la evaluación positiva de todos y cada uno de los módulos.

2.– No obstante lo anterior, el equipo educativo responsable del ciclo formativo podrá autorizar el comienzo de esta fase durante la formación en centro educativo, o a su término, sin que pueda transcurrir en este último caso más de un curso académico entre la fecha de finalización de la formación en centro y la conclusión de las prácticas.

3.– La calificación final de la fase de prácticas (FFP) se expresará en términos de Apto/a o No apto/a.

4.– En ningún caso la calificación de «No apto/No Apta» en la Fase de Formación Práctica se puede superar mediante prueba o actividad de superación.

5.– Podrán quedar total o parcialmente exentos de la Fase de Formación Práctica en empresas, estudios o talleres, quienes acrediten experiencia laboral, de al menos un año, en el campo profesional directamente relacionado con el ciclo formativo que permita demostrar que ha obtenido las capacidades correspondientes a esta fase.

6.– La Fase de Formación Práctica en empresas, estudios o talleres podrá evaluarse un máximo de dos convocatorias.

*Artículo 10.–* Proyecto u Obra Final.

1.– Una vez superada la totalidad de los módulos del ciclo formativo, el alumno o alumna presentará una propuesta de Proyecto Final u Obra Final en la que se reflejará el contenido que propone realizar.

2.– El Tribunal al evaluar la aceptación de la propuesta y el Proyecto Final u Obra Final realizado por el alumno o alumna tendrá en cuenta la consecución de los objetivos y los criterios de evaluación, según lo dispuesto en los correspondientes currículos.

3.– La calificación de cada uno de los apartados de que consta la Obra final o el Proyecto Final se expresará de forma numérica de 0 a 10, sin decimales. La calificación del Proyecto Final u Obra Final se obtendrá de la media aritmética de cada uno de los apartados anteriores y se expresará de forma numérica y con un decimal. La evaluación positiva del Proyecto u Obra final requerirá una calificación media igual o superior a cinco.

4.– Para la obtención de la calificación final al realizar la Obra final o el Proyecto final el alumnado dispondrá de un máximo de dos convocatorias. El alumno o alumna que no obtenga calificación positiva en la primera de ellas podrá optar entre continuar con la elaboración de la misma Obra final o con el mismo Proyecto Final o presentar una nueva propuesta.

5.– Aquellos alumnos o alumnas que tengan pendientes uno o dos módulos del último curso, siempre

tzat, aukera izango dute azken proiektua edo obra egiteko proposamena aurkezteko, modulu horiek lehen lauhilekoaren bukaeran gainditzen badituzte, betiere.

6.– Salbuespen gisa, epaimahaiak, azken proiektu edo obraren tutorearen, edo, hala bada, ponentearen txostena ikusita, eta agiri bidez egiaztatutako arrazoiak direla medio, hirugarren deialdirako aukera eman dezake, azken proiektua edo obra gainditzearren.

*11. artikulua.–* Titulazioa.

Egindako heziketa-zikloaren curriculuma osatzen duten modulu guztietan, prestakuntza praktikoaren aldian eta azken proiektu edo obran kalifikazio positiboa ateratzen bada, ondoko tituluak ateratzeko eskubidea izango da, kasuaren arabera: goi-mailako teknikaria Arte Plastikoetan eta Diseinuan, eta teknikaria Arte Plastikoetan eta Diseinuan.

*12. artikulua.–* Ebaluazio-prozesuko dokumentuak.

1.– 1996ko otsailaren 16ko Aginduak (BOE, otsailaren 23a) bere 1. puntuko bigarren atalean dioenaren arabera, honako hauek dira Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen ebaluazio-dokumentuak: norberaren ikasketa-espedientea, ebaluazio-aktak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko kalifikazio-liburua eta banakako ebaluazio-txostenak.

2.– Arte Plastikoetako eta Diseinuko kalifikazio-liburua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2000ko urtarrilaren 28ko Aginduak dioenari egokituko zaio, Arte Plastiko eta Diseinuko heziketa-zikloetako ikasleen ebaluazio-prozesuan erabili beharreko agirien ereduak argitaratu baititu agindu horrek (EHAA, martxoaren 21a). Era berean, agindu hori betez, ikaslearen ikasketa-espedientea eta ebaluazio-aktak bat etorriko dira agindu honen eranskinetan agertzen diren ereduekin.

3.– Ikasle bakoitzaren ikasketa-espedienteak (I. eranskina) ikaslearen ebaluazio-prozesuari dagokion informazio guztia jasoko du. Ikasketa-espedientean, beraz, ondokoak agertuko dira: ikastetxearen identifikazio-datuak, ikaslearen datu pertsonalak, matrikularen zenbakia eta data, egokitzapen-neurriak eta ebaluazioaren emaitzak.

